

Acacia dealbata: ARKAZIA

Acacia dealbata: identifikazioa



Hosto iraunkorreko zuhaitza da, 15 m-raino irits daiteke. Azal leuna du, arrea edo grisa. Hosto berde ilunak ditu, konposatuak, hostoxka pinatu anitzekin. Loreak globo itxurako glomerulutan biltzen dira, bakoitzak hori koloreko 25-30 lore bilduz. Era ikusgarrian loratzen da urtariletik martxora bitartean. Fruituak zorro itxura du eta 4-10 cm luze da.



Ibaiertzak (batez ere eraldatuak daudenak) kolonizatzen dituen baso espeziea da. Batez beste 50 urte bizi da. Hazi ugari ematen ditu eta hauek lurrian iraun daitezke hamarkadetan zehar. Sute baten ondoren, haziak indarrez erretzen dira. Mozten denean anduitik eta sustraietatik ernaberritzen da. Lurzoru eguzkitsuak nahiago ditu. Beste landareentzako toxikoak diren substantziak sortzen ditu.

Acacia dealbata: jatorria eta kokapena

Australian eta Tasmanian du bere jatorria. Lorezaintzan eta basogintzan erabili ohi da eta lau kontinentetan zehar hedatu da XVIII. mendeaz geroztik. Euskadin maiz aurkitzen da Gipuzkoan, eta **Bizkaian ugaria da** 500 m-ko kotatik behera.

Acacia dealbata: arriskugarritasuna, eragina eta egoera

Oso espezie inbaditzailea da, bere **hazkunde azkarra**, **hedapen gaitasun handia**, borroka kimikorako gaitasuna eta lur eraldatuak okupatzeko erraztasuna direla medio. Baso monoespezifikoak eratzeko joera du. Bere lore-hautsak maiz **alergiak** sortzen ditu. Oso zaila da desagerraraztea bere haziek hamarkadetan zehar iraun beitezakete. 630/2013 EDan sartuta dago.

Acacia dealbata: kontrol eta kudeaketa metodoak

Ezarritako arkazia baso edo zuhaitzi bati erasotzen zaionean, tratamenduak urteak iraun ditzake hazi-bankua agortu arte. Horrela da prozedura:

- Urteroko plantulen erauzketa, eskuz edo tresna arin baten laguntzaz; sustrai guztiekin atera behar dira
- Zuhaitz handiagotarako eraztuntzea proposatzen da, ahal bada hazkuntza garaian, udaberrian eta udan
- Tamaina ertaineko aleei dagokienez, ez da eraztuntzearen eraginkortasunari buruzko aipamenik aurkitu; moztea eta motzondoa material opakuz estaltzea proposatzen da

Lehen tratamenduaren ondoren, bizkor hazten diren bertako espezieak berlandatu behar dira, lehia sustatzeko eta itzala emateko. Landare-hondar guztiak kendu eta zentro eskudunetara eraman behar dira horien balorizazio energetikoa egiteko. Ez dira konpostatu behar. Erabilitako material guztia artoski garbitu behar da haziak ongi kentzeko.

Beharrezkoa da **urteroko plantulak kentzen jarraitzea** urtetan zehar, hazi-bankua agortu arte. Tratamenduak funtzionatzen ez badu, herbizidak (glifosatoa edo triklopir) erabil daitezke zuzenean motzondoan edo injekzio baten bidez, baina ondoko urtean egon daitezkeen kimuak kendu beharko dira.